

# Hiri Hezitzaileen esperientzien azterketatik ildo nagusietara

*Olaia Jimenez  
Karlos Santiago  
Jose Francisco Lukas  
Felix Basurko  
Luis Lizasoain*

olaia.jimenez@ehu.es  
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea  
Euskal Herriko Unibertsitatea

**GAKO-HITZAK:** Hiri hezitzailea. Ziberespazioa. Web ataria. Parte hartzea.

Aurreko artikuluan (Jimenez, Lukas, Basurko, Santiago eta Lizasoain, 2008) hiri hezitzailea zer den ikustetik, esparru estrategikoan hiri hezitzaileak nola eta zein estrategia erabiliz gauzatzen diren ikusi genuen. Pauso hori eman eta gero, hezitzaileak diren hirien Web atariak aztertu dira hainbat irizpide eta adierazle erabiliz. Azterketa honek berak, egiteko modu berria eskatu du. Nolabait esparru birtual baten aurrean ikerlariak lan egiteko metodoa eta rola moldatu behar baititu. Hau eta beste hainbat ekarpen egiten ditu artikulua.

## 1. HIRI HEZITZAILEAREN MARKO ESTRATEGIKOA: ESPERIENTZIEN AZTERKETA

Atal honetan batetik, ikerketa justifikatzen duten azalpenak, hau da, teknologia berrien artean Internetek ireki duen espazio birtuala; ziberespazioak, landa lana egiteko eskaintzen duen informazioa lortzeko aukera azpimarratu eta orain arte Webguneen inguruan zein motatako ikerlanak egin diren azaltzen da. Aipatu azterketak hainbat erreferentzia puntu eman dizkio orri haue-tan garatzen den ikerlanari. Bestetik, ikerketaren metodologiari dagokionez, erabili den lagina eta berau aukeratzeko oinarrizko irizpideak, denboran kokatu, datu iturria eta datuak biltzeko aukeraturiko adierazleak aurkezten dira.

## 1.1. Ezagutzaren Gizartea

Garaiko Ezagutzaren Gizarteak dakartzan aldaketetara egokitzeko gero eta ibilbide luze eta zabalagoa dute bai administrazioek eta baita gainontzeko erakunde eta eragileek ere. Ibilbidea gero eta abiada lasterragoan egiteko beharra ere ikusten da egokitzeko premia horri erantzunez. Bai tokiko administrazioei zein zentraleri, enpresei, gizarte-erakundeei eta abarri egokitzapen beharrak joera berriak sortzera eramán ditu, hala nola, ezagutzaren erabilera, hedapena, errebisioa eta eguneratzea besteak beste.

Teknologiaren aurrerakuntzak eragin nabarmena izan duela Ezagutzaren Gizartean azpimarratu beharrik ez dago. Ezagutzaren Gizartearen funtsezko ezaugarria, arestian aipatu bezala, premiei erantzuna aurkitzeko eta etorkizuna eraikitzeko ezagutza sortu, moldatu eta erabiltzeko gaitasuna izatea da. Gaitasun honen bidez sortutako ezagutza gizartearen onurarako tresna bilakatuz. Bilakaera prozesu honetan ikaskuntza prozesuak kokatu behar dira; alegia, gizarteak, komunitateak, auzoak, herriak edo hiriak haien artean sareak sortuz eragile berritzaile izatera heldu eta gizartearen baldintzak hobetzeko ekarpenak egiteko sareak sortzea da.

Hiru gako aipatu behar dira ezagutzaren gizartearen joera nagusiak aztertzerakoan:

- Gizartearen informatizazioa: Telekomunikazio eta datuen prozesamendurako bitartekoak aukera amaigabeak eskaintzen dituzte. Horrek, gizartearen eraldakuntza ekarri du Informazioaren Gizartean kokatu gaituelarik.
- Globalizazioa: Informazioaren Gizartea globalizazio prozesuan kokatu behar da. Esan beharra dago, historian lehen aldiz, eragile sozial, politiko, sindikal eta abar kontaktuan jartzea ahalbidetu duela muga geografikoak gaudituz. Hala ere, globalizazio prozesua maila ekonomikoan nabarmenagoa izan arren, Gizarte Globalean balio berriak, jarrerak, erakundeen jardura berritzaileak ahalbidetzeko aukera ere eman du.
- Informazio eta Komunikazioa Teknologia: Informatika, mikroelektro-nika, bioteknologia, material berriak eta kimikaren arlo berriek osatzen dituzte oro har Teknologia Berriak. Aukera amaigabeak eskaintzen dituzte baina kontutan izan behar da, informazioa besterenganatzeko edo transferitzeko ez baino, eskuratzeko erraztasuna ematen dutela teknologia berriek.

Ezagutzaren gizarteari bi ezaugarri nagusi egotzi diezazkiokegu:

- a) Ezagutza, gizartearen eta orotariko produkzioaren garapenerako faktore kritikoa dela.
- b) Ezagutzaren jabe egin ahal izateko, gizartean ikaskuntza prozesuen indartzea eta emaitza onuragarriak lortu ahal izateko Hezkuntzaren funtsezko papera da.

Hezkuntzaren eginkizun edo paper horrek duen garrantziak ematen dio zentzua ondoren aurkezten den ikerketari. Hau da, Hiri Hezitzaileen esparruan, aurrerago aipatu den bezala, hiriek berenganatu dituzten konpromisoak nola gauzatzen dituzten aztertzea da helburu nagusia.

## 1.2. Ziberlanda azterketa: aurrekariak

Ziberespazioan<sup>1</sup> hamaika eratako atari birtualak aurki ditzakegu. Atariok hainbat irizpide jarraituz egiten dira. Ikerketa honetan, Hiri Hezitzaile diren udal-administrazioetako Web atariak aztertzeko hainbat ikerketa arakatu dira. Batetik, azterketa objektua zein izan den jakin eta erabilitako planifikazioa erabilgarria eta eredugarria den ikusteko eta bestetik, azterketa egiteko erabili den metodologia ezagutu ahal izateko.

Aurrekarien esparruan, bi alderdi aztertu dira. Alde batetik, Web atarien ebaluaketa egiteko proposamen teorikoak. Hauetan ebaluazioa prestatzeko edo antolatzeko aintzat hartu beharreko parametroak edo dimentsioak ikusi dira (Merlo, 2003). Beste alde batetik, praktikan egin diren Web atari ezberdinen ebaluazioen praktika.

Lehen alderdia aztertzerakoan, Web atarien ebaluaketan adituak diren hiru eredu edo proposamen teoriko jasotzen dira Merlok (2003) eginiko errebisioan.

Web atarien ebaluaketak bildu eta hauen baliagarritasuna aztertu du Merlok (2003), hau da, bere lanean ebaluaketa esanguratsuenak, zorrotzasun zientifikodunak, erabilgarrienak eta ospe bereziko egileak burututakoak jaso ditu. Merlok (2003) dioenez, Estatu espainiarrean Codina irakaslea dugu erreferentzia nagusiena. Adituaren esanetan, atari birtualen ebaluaketaren lehen urratsean lau atal nagusi hauek erabaki behar direla dio:

- a) Parametroak: ebaluatu nahi diren aspektu orokorretaz mintzo da, alegia zer ebaluatu nahi dugun. Adibidez, atarira sarbidea.
- b) Adierazleak: Parametro bakoitzean ebaluatu nahi diren puntu zehatzagoak dira. Hau da, parametroak nola ebaluatu behar ditugun esan nahi dute. Adierazle bakoitza azaltzeko honako puntuak kontutan hartu behar dira: adierazlearen definizioa, zein galderari erantzun behar dion adierazleak, adibideak ezarri, prozedurari buruzko oharrak eta puntuaketa.
- c) Prozedurak: Hauei dagokienez, adituak dioenez, esperientzia bakan batzuk aurki ditzakegu eta sistematizatze beharra azpimarratzen du.
- d) Baliabideak: Bai pertsonalak, materialak, tresnak edo dokumentuak aipatzen ditu.

---

<sup>1</sup> Ziberespazio eta ziberlandari buruz gehiago jakiteko, <http://www.qualitative-research.net/fqs-texte/3-07/07-3-E1-s.htm>

Parametroak eta adierazleei dagokienez, Codina irakasleak 2000. urtean lehenengo saiakera batean eginiko ekarpenak parametroen barnean zeintzuk diren esanahi handikoenak aukeratzea eta nabarmentzearen beharra azpimarratu zuen. Labur esateko, bere ustez Web atarien ebaluaketa bi parametro erabiliz egin daiteke, batetik edukia eta bestetik egilea. Hala ere, bi parametro hauei garrantzizkoak diren beste bi gehitu zizkion, nabigazioa eta erabilgarritasuna. Parametro horien baitan 14 adierazle ezberdin bereizten ditu:

- |                                                  |                                              |
|--------------------------------------------------|----------------------------------------------|
| 1. Informazioaren kalitatea eta tamaina.         | 7. Deskargatzeko lastertasuna.               |
| 2. Egiletasuna: erantzukizuna eta kaudimena.     | 8. Zerbitzu gehigarriak.                     |
| 3. Irakurgarritasuna eta ergonomia.              | 9. Argitasuna.                               |
| 4. Informazioan errepresentazioa eta nabigazioa. | 10. Esteken kalitatea.                       |
| 5. Berreskuratzeko ahalmena.                     | 11. Esteken eguneratzea.                     |
| 6. Interaktibotasuna.                            | 12. Deskribapena, aukeraketa eta ebaluazioa. |
|                                                  | 13. Ikuspena.                                |
|                                                  | 14. Auto-deskribapena.                       |

Urte berean baina beranduago eginiko bigarren saiakera batean, sei adierazletan laburbildu zituen aurreko zerrendan aurkeztu diren adierazleak:

1. Egiletasuna: erantzukizuna eta kaudimena.
2. Edukia: Informazioaren kalitatea eta tamaina.
3. Irisgarritasuna: Informazioan errepresentazioa eta nabigazioa.
4. Ergonomia: erabilerraztasuna eta erosotasuna.
5. Argitasuna: kanpoko esteken presentzia eta kalitatea.
6. Ikuspena: beste baliabide batzuetatik jasotako esteka kopurua.

Gaur egun berriz lau dira Codinak (2003) proposatzen dituen parametro nagusiak: identifikazioa, nabigazioa, ikuspena eta erabilgarritasuna. Gaineratu beharra dago baita, lau parametro nagusi horiek Calderon-ek (2006) jasotzen dituela bere lanean.

Gaineratu daitekeen beste ebaluaketa bat Alison Cooke-ek eginikoa da. Bertan egiten den proposamenak Web atarien irisgarritasuna ebaluatzeko hainbat adierazle jasotzen ditu. Ataria erakunde batena, pertsonala, datubasea edo argitalpen elektronikoa bat izatearen arabera izango da azterketa. Honako hauek dira Cooke-k (1999) eginiko ebaluaketan jasotako parametroak (Merlo, 2003):

- |                                |                                              |
|--------------------------------|----------------------------------------------|
| 1. Asmoa.                      | 7. Informazioaren aurkezpena eta antolaketa. |
| 2. Babeslea.                   | 8. Erabilerraztasuna.                        |
| 3. Egilea eta ospea.           | 9. Beste iturriekin alderaketa.              |
| 4. Zehaztasuna.                | 10. Baliabidearen kalitate globala.          |
| 5. Eguneraketa eta mantentzea. |                                              |
| 6. Irisgarria.                 |                                              |

Azkenik informazio iturrien kalitatearen inguruko beste ikerlan aipagarria jasotzen da. Ikerlana Wilkinson, Bennet eta Oliverrek Georgiako Unibertsitatean eginikoa da. 125 adierazle erabili zituzten esku artean eta honako 11 parametrotan antolatu zituzten (Merlok, 2003):

- |                                                          |                                                |
|----------------------------------------------------------|------------------------------------------------|
| 1. Informazioaren irisgarritasuna eta erabilgarritasuna. | 6. Edukiaren garrantzia.                       |
| 2. Baliabidearen identifikazioa eta dokumentazioa.       | 7. Edukiaren baliagarritasuna.                 |
| 3. Egilearen identifikazioa.                             | 8. Edukiaren zehaztasuna eta fida-garritasuna. |
| 4. Egilearen autoritatea.                                | 9. Dokumentu barneko nabigazioa.               |
| 5. Informazioaren egitura eta diseinua.                  | 10. Esteken kalitatea.                         |
|                                                          | 11. Alderdi estetikoak eta afektiboa.          |

Web atarien ebaluazioaren praktikara jotzen badugu, Merlok (2003) aipatzen duenez, badira erakundeak sareko baliabideen bildumak eta direktorioak egiten dituztenak. Beharrezkoa izaten ohi da erakunde hauentzako irizpide kualitatibo objektiboak izatea sarri askotan Web atarien administrazioaileak hauengana jotzen baitute irizpide eske.

Esan beharra dago, sarean bisitatuenak diren direktorioek (adibidez, The WWW Virtual Library <http://vlib.org> edo BUBL <http://bubl.ac.uk>) ez dutela adierazle propiorik. Beraiek modu subjektiboan hautatzen dituzte adierazleak, ez baitituzte irizpide finkoak erabiltzen ebaluaketak egiteko (Merlo, 2003).

Era honetako erakundeen artean ordea bada ebaluazio aipagarriak egiten dituztenak ere. Horien artean Argus Clearinghouse dugu. Gaur egun, baliabide eta giden bildumak jasotzen dituen Internet Public Library-ren <http://www.clearinghouse.net> baitan dago. Erakunde honek bost irizpide nagusi hauek jasotzen ditu Web atarien ebaluazioa egiteko:

- Baliabidearen deskribapena: edukien azalpena, sarbidea eta esteken irisgarritasuna.
- Baliabidearen ebaluazioa: atalen tipologia, erabilgarritasuna eta egileari buruzko datuak.
- Diseinua: aspektu estetikoak eta erabilerraztasuna.
- Edukiaren antolaketa: edukiaren sistematizazioa nola egin den.
- Metainformazioa: direktorioaren helburuei, nork eta nola egin duen, eguneratzea eta abarri buruzko datuak.

Modu oso zorrotzean ebaluaziorako irizpideak ezartzen dituen SOSIG (Social Science Information Gateway) aipatu behar da. Hiru oinarrizko irizpide ezartzen dituzte:

- Edukia (baliagarritasuna, nork egin duen, informazio iturriaren ospea eta garrantzia, zehaztasuna, bakartasuna eta antolaketa).
- Nabigazioa (erabilerraztasuna, eskainitako laguntzak, onartutako arauak betetzen diren, teknologiaren erabilera egokia, estetika).

- Web atariaren ezaugarriak (eguneratzea, sistemaren funtzionamendua, atariaren administratzailearen egilea).

Azkenik aipatu behar da, Interneten ebaluaketak egiten dituzten direktorioen artean erreferente bilakatu den Internet Scout Project <http://scout.cs.wisc.edu>. Web atariak ebaluatzeko erabiltzen dituzten oinarrizko irizpideak honako hauek dira:

1. Edukia (erabiltzaileak, asmoa, informazioaren antolakuntza).
2. Egilearen erantzukizuna.
3. Informazioaren mantentzea.
4. Aurkezpena (nabigarritasuna, erabilgarritasuna, informazioaren antolakuntza).
5. Aukeratutako esteken baliagarritasuna.
6. Informazioaren kostua (doakoa edo ordaindua).

Orain arte aztertutako esperientzietatik ateratakotik esan behar da, ebaluazioan argi eta garbi zehaztu behar direla ebaluatu nahi diren parametroak edo dimentsioak. Honi erantsi behar zaion ideia nagusia da beti ere oso kontutan hartu behar dela zer aztertu nahi den eta aztertu nahi den objektuaren izaera, alegia Web atariaren nolakotasuna. Azkenik, prozedurak zehazteak garrantzia nabarmena izan baduela baina agian orain artekoa ikusirik, sistematizaziorako proposamen zehatzik ez dagoela esan daiteke.

Calderon-ek (2006) CNICE (Centro Nacional de Información y Comunicación Educativa) argitaratutako artikulu batean Web atarien ebaluaketa egiteko hainbat proposamen metodologiko jasotzen ditu. Besteak beste, Gairin-en aholkua jasotzen du (Calderon, 2006) eta arestian esandakoa berrestera dator, alegia Web atariaren izaeraren arabera moldatu behar direla parametroak eta adierazleak.

Hezkuntzaren esparruan kokatzen bagara, batetik hezkuntzarako interesa duten atariak eta bestetik, hezitzaileak direnak ditugu. Oro har irizpideak bertsuak (identifikazioa, baliabidearen tipologia, erabilera eta alderdi funtzionalak, alderdi teknikoak eta estetikoak, alderdi psikologikoak eta balorazioa orokorra) dira baina ezberdin aurkeztuak. Irizpide hauei erantsi ahal zaie Pere Marques-ek proposatzen duen baliabidearen aplikazio didaktikoa aztertea da (Calderon, 2006). Honen barnean honako adierazleak jasotzen ditu: erabiltzaileak, hezkuntza testuingurua, atariaren hezkuntzarako ekarpena, ikasleek egin ditzaketan jarduerak, motibaziorako gaitasuna, informazioaren prozesamendua, auto-ikaskuntza sustatzen duen besteak beste.

Hezitzaileak diren atarientzako parametro nagusiak, alderdi orokorrak (identifikazioa, egitura, tipologia, asmoa, deskribapena, mapa, erabiltzaile,...) alderdi funtzionalak, alderdi teknikoak, zientifikoak eta pedagogikoak dira.

Esan gabe doa guztietan parametro eta adierazle guztiak ebaluatzea ez dela beharrezkoa. Ebaluatu nahi denaren eta lortu nahi den helburuaren araberkoa izango da aukeraketa.

Azkenik aipatu behar da, eta Calderon-ek (2006) jasotzen duen bezala, ebaluazio kuantitatiboaren aldeko apustua egiten duten egileak ere badaudela. Horien artean Aguillo aipatzen du. Azken honen hitzetan elementu subjektiboak ekidin eta objektiboak bultzatu behar dira. Bere proposamena Bibliometriaren teknikak Web atariei aplikatzea litzateke. Prozedura horrek bere ustez, diziplina berri bati hasiera emango lioke, zibermetriari<sup>2</sup> hain zuzen ere.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1. Ikerketaren helburua

Ikerlan honetako helburu nagusia tokiko administrazioen Web atarietan hiri hezitzaile izateko berenganatu dituzten printzipioen garapena aztertzea da. Ez da Web atarian dagoen edukia aztertzea, ez da beste hainbat ikerketatan aztertu diren ikuspena, nabigagarritasuna edo irisgarritasuna ebaluatzea edo atarien hezkuntzarako prestutasuna eta balioa ebaluatzea.

Kasu honetan, hezkuntza izaki hiri hezitzaile izaera izateko ardatza horretan zentratuko da eta honela, hiri hezitzaileen ildo nagusiak eta tipologia ezberdinak ateratzeko bidea irekiko digu.

### 2.2. Ikerketarako oinarrizko irizpideak

Web atarien ebaluazio honetan hiri hezitzaileen Web atariak aztertzeko hasiera batean jarri diren irizpideak hauek dira:

- Lehenik, aukeratutako hiriak Estatu espainiarrekoak dira. Bertan, AICEko hiri elkartekideen <http://w10.bcn.es/APPS/eduportal/pubPaisosAc.do> artean gehientsuenak aurki ditzakegu.
- Bigarrenik, hiri hezitzaileen Web atariak aztertu eta hiri hauek aurrera eramán dituzten esperientzia berritzaileak aztertu dira. Baina hasierako hurbilpen batean ikusi ahal izan da hiriak nahiz eta AICE-ko elkartekide izan ez zutela hezkuntza esperientzia berritzailerik AICE-ko datu basean (BIDCE). Hau ikusirik, bigarren irizpidea ebaluazio honetan hiri hezitzaile bat kontutan hartu ahal izateko, gutxienez hiriak esperientzia bat izan behar zuela datu basean Banco Internacional de Documentos de Ciudades Educadoras (BIDCE) [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_banc.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_banc.html) da.

---

<sup>2</sup> Gehiago jakiteko, CIINDOC <http://www.cindoc.csic.es/cybermetrics/> eta [e-revist@s](mailto:e-revist@s) [http://www.erevistas.csic.es/portal/ficha\\_articulo.jsp?id=oai:www.uoc.edu/rusc:9276](http://www.erevistas.csic.es/portal/ficha_articulo.jsp?id=oai:www.uoc.edu/rusc:9276)

### 2.3. Azterlanerako parametroak, adierazleak, prozedurak eta tresnak

Hasierako irizpide hauek argituta hurrengo urratsa Web atariaren ebaluaketa egiteko parametroak edo dimentsioak eta adierazleak zehaztea izan da. Aurrerago aipatu bezala bi ildo nagusi aztertu dira aldi berean osagarriak direnak: Hiri hezitzaileen Web atariak eta Hiri hezitzaileen esperientzien ezaugarriak.

1. taula  
**Web atariaren azterketarako parametroak, adierazleak, prozedurak eta tresnak**

Parametroak	Adierazleak	Prozedurak	Tresnak
<b>a. Hiriaren identifikazioa.</b>	a.1. Hiriaren izena. a.2. Biztanle kopurua: hiriaren tamainaren arabera azterketa eta konparaketa egiteko lagungarria ikusten da. a.3. URLa identifikatzea.	– Hiriaren izena. – Zenbat biztanle ditu? – Web atariaren URLa.	1. Taula: BIDCE eta WEB ataria datu iturri direlarik.
<b>b. Hiriaren esperientziak.</b>	b.1. Esperientzia kopurua. b.2. Esperientzien sarrera urtea. b.3. Esperientzien eguneratze urtea.	– Zenbat esperientzia ditu? – Noiztik ditu esperientziak BIDCE sartuak? – Eguneratuak al daude esperientziak?	
<b>c. Web atariaren garapena.</b>	c.1. Web atarian hiri hezitzaile logotipoa: bai/ez. c.2. Hezkuntza atalean hiri hezitzaile logotipoa: bai/ez. c.3. Hezkuntza atalera sarbidea: erraza/zaila. c.4. Hezkuntza ataleko deskribapen laburra. c.5. HHP edo PEC: bai/ez. c.6. Planak edo programak. c.7. Parte hartzea: deskribapen laburra.	– Hiri hezitzaile logotiporik ba al du hasierako orrian (portada)? – Hezkuntzaren atalean ba al du hiri hezitzaile logotiporik? – Hezkuntza atalerako sarbidea nolakoa da? Erraza al da? Hasierako orritik sartu al daiteke? Zaila al da? Atal batetik bestera joan behar al da? – Zer aurkitzen dugu Hezkuntza atalean? Deskribapen laburra. – Ba al dauka Hiriko Hezkuntza Proiekturik (HHP edo PEC), Tokiko Hezkuntza Proiekturik (THH edo PEL), Auzoko Hezkuntza Proiektua (AHH edo PEB)? – Ba al dauka beste planik edo programarik? Deskribapen laburra. – Ba al dago hiritarren parte hartzeko atalik? Nola antolatua dago? Zein mekanismo edo sistematizazio dago hiritarren parte hartzeko?	



2. taula  
**Esperientzien azterketarako parametroak,  
 adierazleak, prozedurak eta tresnak**

Parametroak	Adierazleak	Prozedurak	Tresnak
<b>a. Identifikazioa.</b>	a.1. Hiriaren izena identifikatu. a.2. Esperientziaren izena identifikatu.	— Hiriaren izena identifikatu. Esperientzia bakoitzaren izena.	2. Taula: BIDCE datu iturri delarik.
<b>b. Eguneratzea.</b>	b.1. Esperientziaren eguneratze urtea.	— Zein urte ageri da eguneratze datan?	
<b>c. Hiri hezitzaileen gutuneko printzipioak.</b>	c.1. Printzipioak.	— Zein printzipio lantzen ditu esperientzia bakoitzak?	
<b>d. Esperientzia garatzen den esparrua.</b>	d.1. Esparrua (elkartegintza, ingurumena, parte hartzea, artea, zientzia, teknologia,...).	— Zein esparrutan egiten da esperientzia? Zein esparru da landuena?	
<b>e. Esperientzia antolatzen parte hartzen duten sailak, erakundeak edo eragileak.</b>	e.1. Saila(k), erakundea(k), eragile(k).	— Zeintzuk antolatzen dute esperientzia? Zeharkakotasuna ageri da? Askotariko eragileak parte hartzen dute? Udaleko sailak ageri dira? Hezkuntza saila da ohiko antolatzailea?	

Web atariaren ebaluazioan inguruan arakatu diren lanak ikusita eta lan honi hasiera eman aurretik Web atarietara eta esperientzien arlora eginiko gerturazte intuitiboak sailkapen eta adierazle propio batzuek zehaztea ahalbidetu du. Hurbiltze intuitiboa esaten denean, ebaluazioa prestatzeko *a priori* egin den saiakera bat bezala ulertu behar da. Saiakera honek argitasun ugari eskaini ditu aurrerantzean egin beharreko zehaztapenak egiteko (edukia mugatu eta definitu, adierazle ezberdinak hautatu,...) eta erabakiak hartzeko (irizpideak ezarri, esperientziak aztertu informazio osagarria gisa, tresnak sortu,...).

Jarraian batetik, Hiri Hezitzaileen Web atariak aztertzeko parametroak edo dimentsioak, adierazleak, prozedurak eta tresnak azaltzen dira eta bestetik, Hiri Hezitzaileen esperientzien ezaugarriei buruzkoak.

#### 2.4. Diseinua

Gaur egun Internetek ikerketarako esparru zabal bezain interesgarria ireki du. Hainbat egilek *etnografia birtuala* (etnografia Internet bidez, digitala, sarean, ziberetnografia, ...) terminoa erabiltzen dute ziberespa-

zioa aztertzearen eginkizunaren esparruari. Esparru berri horren inguruko iritziak askotarikoak dira, etnografia birtuala etnografiaren baitako jardunbide bat dela dioenetik partikularitasunik ez duela dioenera. Batik bat ziberespazioan gertatzen diren sare eta harreman sozialen eta hauek duten eskenatoki kulturalaren azterketari egiten dio erreferentzia. Eskenatoki hau da hain zuzen ere, ikerketa kualitatiboaren inguruan hainbat eta hainbat galdera sorrarazten dituen (Domínguez, Beaulieu, Estadella, Gomez, Schnetteler eta Read, 2007).

Eskenatoki aldaketak aukera ezberdinak sortu ditu datuak biltzeko orduan. Aldi berean, metodologikoki ere zailtasunak sortu ditu eta horri erantzutea litzateke erronka. Esan bezala sorrarazten dituen galderetako batzuen artean datuak biltzeko landa-lan molde berrien irekierari buruzkoak aurki daitezke, hau da, datuak espazio birtual batetik ateratzea, ikertzailearen zuzeneko harremanik ez egotea eta ikertzailearen rola eskenatoki birtualaren aurrean dira besteak beste.

Planteamendu berri horien aurrean kokatzen da ondorengo orrietan jasotzen den ikerketa deskribatzailea. Eskenatoki birtuala du ikerketa honen. Ziberespazioan kokatuta dagoela badakigu eta datu-iturriak Interneteko Web atariak dira; landa-lana egiteko eskenatokiari ziberlandak azterketa izendapena eman zaio. Hauek guztiak aintzat harturik aurkezten da ondorengo proposamen metodologikoa.

## 2.5. Azterlanaren ezaugarriak

- *Azterketa objektua*

Hiri hezitzaile bakoitzak hartu dituen konpromisoen garapen maila aztertzen da. Garbi utzi behar da ziberlandako azterketa honetako objektu zentrala Web atarietan hiri hezitzaileen konpromisoen garapena eta hezkuntzaren presentzia direla. Informazio hau osatzeko eta hiri hauen hezkuntza esperientzia berritzaileak zehazki aztertzeko, BIDCE (Banco Internacional de Documentos de Ciudades Educadoras) dokumentu eta esperientzia bankua erabiliko da.


- *Lagina*

Ikerketa honetako oinarriko irizpideetan aipatu bezala, estatu espainiarreko hiriak izango dira lagina osatuko dutenak. Orotara 56 hiri hezitzaile izan dira lagina osatuko dutenak. Hiriak biztanleriaren arabera desberdinak direla ikusirik eta datuan deskribapena eta analisis errazteko asmoz, sailkapena egiteko beharra ikusi da. Sailkapena egiteko, 1985/7 apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legera (TAOL) jo da. Bertan

jasotzen den irizpidearen arabera hiriak biztanle kopuruaren arabera sailkatzeko oinarria hartu da. Honela sailkatu dira hiriak<sup>3</sup>:

- Hiri txikia: 5.000-20.000 biztanle artekoa.
- Hiri ertaina: 20.001-50.000 biztanle artekoa.
- Hiri handia: 50.001 biztanletik gorakoa.

Esan dezakegu aztertutako hirien tamaina biztanleriaren arabera gehien bat handiak izan direla, hain zuzen ere 38 hiri 50.001 biztanletik gorakoak.



1. grafikoa  
**Hiriak biztanle kopuruaren arabera**

- *Denboralizazioa*

Ikerketa burutu den denbora tartea 2006ko azarotik 2007ko ekainera izan da. Web atariak eta Hiri Hezitzaileen elkarteko (AICE) dokumentu eta esperientzia datu basea aztertu direnez esan behar da, epe honetatik kanpo hautatutako atarietan aldaketak izateko aukera egon dela. Beraz, epe horretatik kanpoko aldaketak (Web atariak berriztatzea, hezkuntza esperientzia berriak gehitzea,...) ez dira kontutan hartu.

- *Datu-iturriak*

Bi datu-iturri erabili dira:

- Batetik, hautatutako hiri hezitzaileen Web atariak. Beraz, 56 Web atari ezberdin erabili dira. Atari hauetarako estekak BIDCE bertatik lortu da.

---

<sup>3</sup> Iturria: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL), 1985/7 Apirilak 2ko Legea, 26. artikulua.

- Bestetik, AICEko [www.edcities.org](http://www.edcities.org) dokumentu eta esperientziak biltzen dituen datu-basea: BIDCE (Banco Internacional de documentos de Ciudades Educadoras): [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_banc.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_banc.html)

- *Adierazleen aukeraketa:*

Web atariaren eta hezkuntzarako esperientzi berritzaileen azterketa egiteko aurreko puntuan jasotzen dira bi taula. Esan behar da bi taula hauetan jaso den informazioa bata bestearen osagarria dela.

### 3. DATUEN ANALISIA ETA DESKRIBAPENA

Datuen deskribapena egiteko antolakuntzari begira batetik, tokiko administrazioen edo hiri hezitzaileen Web atariaren azterketatik bildutako informazioa deskribatzea parametro bakoitzaren arabera eta esperientzien atala osatzeko, bigarren taula osatzen duten datuen deskribapenak erantsiz egin da.

#### 3.1. Emaitzen deskribapena

##### *Hiriaren identifikazioa*

- Ikerlan honetako hiriak biztanlearen arabera gehienak (38) tamaina handikoak izan dira. Estatu espainiarreko autonomia erkidego ezberdinetan barreiatuak daude.

- Hiriaren identifikazio datuei dagokionez, hirien Web atarietarako helbideak (URL) oro har eguneratuak daudela AICEko datu-basean. Alegia, erraztasunez sar daiteke hiri hauen Web guneetara <http://w10.bcn.es/APPS/eduportal/pubPaisosAc.do>.

##### *Hiriaren esperientziak*


- Esperientzia kopuruari dagokionez, adibide ezberdinak aurki daitezke. Oro har Kataluniaren kasuan eta zehazki Bartzelona hiriaren kasua gainontzeko hiri gehien artean nabarmentzen da. Honek badu bere logika. Hau da, hiri hezitzaileen elkartearen sorreraren hasieratik egon da Bartzelona eta baita Bartzelonako Aldundiko Hezkuntza Saila ere. Honek administrazioen inplikazioa eta azpiegituren antolakuntzan eragin zuzena izan du nolabaiteko lidergoa hartuz. Beraz esan dezakegu, esperientzia ko-

purua aztertzerakoan Bartzelonak batez bestekoa lanbrotzen duela besteen aldean esperientzia kopurua nabarmen altuagoa duelako.

3. taula  
**Esperientzien batez bestekoa**

	N	Batez bestekoa
Kasuak	56	3,71

Begirada batean honako grafikoarekin hiriek orokorrean zenbat esperientzia dituzten ikustea ahalbidetzen digu, aldi berean nabarmentzen diren kopuruak erraz aztertuz.



2. grafikoa  
**Hirien esperientzia kopurua**

- Hiriaren esperientzian barnean adierazle garrantzitsu bat haien eguneratzea izan da. Eguneratzea egokia denean 2006 edo 2007 urtea agertzen delako esan nahi da. Esan beharra dago lehenengo taulan jasotzen den informazioak esperientziak orokorrean zein urtetan hasi eta eguneratua dagoen data berriena biltzen duela. Datu honi dagokionez esan daiteke, hiri batzuek hezkuntza esperientzia berritzaileak orain dela hamar urte baino gehiago martxan jarri zituztela eta eguneratze data gaurkotua dutela. Horren adibide dira oro har hiri ugari, horietan besteak beste A Coruña, Albacete, Bartzelona, Granollers, Canovelles, Castedefeels, Cordoba, Gandia, Gijon, Granada, Madril, Mataro, Pozuelo de Alarcon, Reus, Sabadell, Mataro, Santa Coloma de Gramenet eta Santiago de Compostela aurki ditzakegu.

Beste hiri batzuek aldiz, hamar urte edo gutxiago daramatzate esperientziak martxan eta era berean esan daiteke esperientziak gaurkotuak dituztela, horien artean aipa daitezke: Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Iruñea, Aviles, Badalona, Barbera del Valles, Calvia, Cambrils, Ciutadella de Menorca, Cornella de Llobregat, Ecija, Girona, Ibi, Palafrugell, Peligros, Pozuelo de Alarcon, Puerto Real, Quart de Poblet, Reus, Rubi, Sant Boi de Llobregat, Sant Cugat del Valles, Santa just Desvern, Santa Cruz de Tenerife, Sevilla, Tarancon, Tarragona, Terrassa eta Zaragoza.

Salbuespenak ikusteko aukera ere eman dute adibidez Burgos eta Getafe hiriek. Batetik, Burgosen kasuan ikus daiteke esperientziak 1996. urtetik abian jarri dituela baina 2005. urtea du eguneratze data bezala. Getaferen kasuan 1987. urtetik abian ditu hainbat esperientzia baina 2005eko data agertzen zaigu eguneratze data. Ez dira beraz gaurkotua bezala ematen.

Esperientzien atalean sakontzeko bildu den beste taula osagarriak (esperientziak, printzipioak, eguneratzea, esparrua eta sailak) bestelako hau eransteke aukera ematen du: hiri bakoitzeko esperientziak banan-banan begiratzen baditugu, aurreko paragrafoan esandakoa zehazteko premia ikusten da. Alegia, hiri bakoitzak dituen esperientziak eguneratze data ezberdina agertu dezakete. Adibidez, Donostiak baditu bi esperientzia eta horietako bat 2005eko datarekin eguneratua dago eta bestea berriz, 2006. Gauza bera esan dezakegu beste hiri batzuetaz: Barakaldo, Iruñea, A Coruña, Albacete, Aviles, Badalona, Barbera del Valles, Burgos, Calvia, Cambrils, Canovelles, Casteldefells, Cordoba, Getafe, Bartzelona eta hauek bezala ia kasu gehienetan.

Esan behar da hiriek kasu denetan esperientzia bat edo bi dituztela. Kasu hauetan guztietan eguneratzea 2006 edo 2007 dela ikus daiteke. Honen adibide dira besteak beste, Bilbo, Gasteiz, Rubi, San Boi de Llobregat, Santa Coloma de Gramenet, Tarragona, Santa Cruz de Tenerife, Logroño, Granada eta Cornella de Llobregat. Gaineratu daitekeen beste datu bat zera da: Aipatutako hirien ibilbidea 1999-2000. urtetik honakoa dela.

Salbuespen hauen artean ere aurreko baldintzak bete eta eguneratze data gaurkotua ez duenik ere bada, adibidez Quart de Poblet eta Terrassa.

• Esperientziekin jarraituz, jakin badakigu esperientzia berritzaileok hiritarren garapen pertsonala eta soziala sustatzeko pentsatuak eta antolatuak daudela; finean, herritarren edo hiritarren ongizate maila hobetzeko asmoz eginak hiria eta hiritarren arteko elkarlanean. Aztertu den beste atal bat esperientzia hauek garatu diren eremua edo esparrua izan da. Nolabait hiriek zein esparrutan antolatu eta aurrera eraman dituzten jakiteko. Hau horrela izanik honako arloak bereiztu daitezke:

- I. **Hiritartasuna:** hiritarraren izaera aberasteko hainbat gaietan jardun desberdin biltzen ditu: IKTak, Hizkuntzak, Balioak (hirian, kalean, etxean, eskolan, lanean, kirolean), Prebentzioa (bortxa, drogak, kontsumo arduratsua, eskola porrota, absentismoa), Prestakuntza (hedabideak, ikastaroak, zikloak, antzerkia, zinea), Gizabidezko ikaskuntza (bide hezkuntza, hiritartasunerako hezkuntza, bakerako hezkuntza).
- II. **Aisialdia:** Denbora librearen erabilera honako arlo hauek ezagutzera emateko: Hiriko artea, historia eta kultura, Hiriaren nortasun kulturala, Animazio soziokulturala, Eskolaz kanpoko jarduerak, Kirola, Osasuna.
- III. **Ingurumena eta ekologia:** Hiriaren ingurua eta oro har ekologiaren balioaren esanahia helarazi eta ikasteko. Hezkuntza sistemarekin lotura, Zientzia eta teknologia, Garraio publikoa, Hiriaren espazio eta guneak, Hiri iraungarria.
- IV. **Eskola eta hiria:** Bi eragile hezitzailearen arteko harremana sendotzeko eta lankidetzara. Eskola eta hiriaren arteko lotura, Eskola eragile gisa hobetzea, Eskola, hiria (administrazio gisa) eta familia.
- V. **Kulturartekotasuna eta bizikidetzara:** Hiriko bizikide ororen arteko harremana sustatzeko oinarrizko elementuen lanketa. Eskubi-deak, Elkartasuna, Kulturen arteko komunikazioa, Bakea, Errespetua, Justizia soziala eta Askatasuna.
- VI. **Parte hartze soziala:** Hiriak biltzen dituen gizatalde ororen lekukotasuna eta ahotsa biltzea tokiko administrazioarekin batera hiriaren arlo ezberdinetako egitasmoak, jarduerak eta programak burutzeko.
  - Auzo-komunitateak.
  - Komunitatea.
  - Gazteak eta nerabeak.
  - Haurrak eta familiak.
  - Etorkinak.
  - Genero ezberdinak.
  - Ezintasun ezberdinak.
  - Helduak eta edadetuak.
  - Elkarrekin eta erakunde ezberdinak.
  - Arloak: hirigintza, HHP (Hiriko Hezkuntza Proiektua), AHP (Auzoko Hezkuntza Proiektua), aurrekontuak eta abar.

**VII. Gizarteratzea eta lan-munduratzeari:** Aukera berdintasuna eskaini eta desabantaila egoeran daudenen ibilbideak parekotasunean ezartzeko saiakerak. Gizarteratzea lortzeko prestakuntza eta lanera bideraturiko ibilbideak sortzea.

- Eskolaratzea.
- Bazterkeria egoerak deuseztatu.
- Haurrak, emakumeak, etorkinak, gazteria eta etniak.
- Lan-munduratzeko ibilbideak sortu.
- Lanbide prestakuntza.
- Informazio eta orientabidea.
- Etengabeko prestakuntza.

- Ikus daitekeen bezala zazpi arlo ezberdinen baitan garatu dira esperientzia berritzaileak. Hiritarren ongizatea hobetzeko ideia nagusia esparru hauen bitartez artatzen da. Hiritarren hiritartasuna lantzetik, haien aisialdia hiriarekin duten harremana estutzeko aukera bezala hartuz, hiriaren ingurua eta ekologia oro har hiritarren balioen artean txertatu eta honen zaintza bultzatu; eskola eta hiria elkarlanean eta etengabeko lankidetzan ezartzeko aukera behin eta berriz erabiliz hirian bertan bizi diren guztien arteko bizikidetzako oinarrizko elementuak landu bai aisialdiaren bidez, parte hartzea bultzatuz, topaguneak eraikiz eta desabantaila egoeran daudenen aukerak gainontzekoen parean ezartzea ahalbidetuz. Arlo hauek guztiak bereizteak ez du inolaz ere atal bereiztu eta elkartezinak direla esan nahi, ezta gutxiagorik ere. Oso bestelako ideia da atal edo esparru hauek lotzen dituen, alegia esparruak bereiztu dira argibide gisa hiri hezitzaileen jardunbidea zehatzago aztertzeko baina argi eta garbi erakusten dute esparruen artean ezinbestean lotura dagoela.

Adibidez,

- Donostiako «Zinea eta Giza Eskubideak» arteko topaketa. Bizikidetzaren eta kulturartekotasuna lantzeko bide bat eraiki da. Bide horretan justizia soziala, bizikidetzaren, bakea,... lantzen dira.

- Hiri hezitzaileen esperientziak kokatu ondoren orain esperientzia horiekin Hiri Hezitzaileen Gutuneko printzipioekin duten lotura aztertzea egokitzen da. Lotura horretan batez ere interesgunea hiriek zein printzipio lantzen dituzten batik bat ikustea da. Jakin badakigulako esperientzia oro gutuneko printzipioekin loturik daudela. Beraz honako hauek dira gehien bat landutako printzipioak:

4. taula  
**Maiztasun taula**

	Printzipioak	P1	P2	P3	P4	P5	P6	P7	P8	P9	P10	P11	P12	P13	P14	P15	P16	P17	P18	P19	P20
N	Baliozkoak	43	35	9	26	30	8	17	6	33	43	29	13	16	15	26	24	7	25	16	18



Ikus dezakegun bezala nabarmentzen diren printzipioak 10., 1., 2., 9., 5., 11. eta 18. dira hurrenez hurren. Horien artean maiztasun gehiagorekin azaltzen diren biak azpimarratuko dira. Maiztasun berarekin batetik 10. printzipioa dugu, belaualdi gazteenentzako hiria baliabidez eta azpiegiturez hornitzea litzateke labur esanda; eta bestetik 1. printzipioa, hiritar oren hezkuntzarako eskubidea bermatzea adierazten duen printzipioa.

Esperientzietan agerikoenak bigarren maila batean, 2. printzipioa —elkartasuna eta bakea sustatzea—, 9. —tokiko administrazioaren eginkizuna hiritarren parte hartzea sustatzeko informazioa eta bitartekoak ezartzea— eta 5. —hezkuntzari dagozkion politikak modu irekian, zeharka eta esparru orotara hedatzea— daude.

Azkenik aipatzekoa da gutxien agertzen diren printzipioak 3., 6., 8., eta 17. direla. Azken printzipioek dioskunenaren arabera, batetik, belaualdien arteko elkarriketa bultzatzearen beharra jasotzen du hirugarrenak; bestetik, hiriko egoera eta premia ezberdinak ezagutzeko azterlanak egin eta ezagutzera emateko bideak jorratzea; hurrenik, hiriaren eraikuntzak eta itxuraz gain, irisgarritasuna eta gune egokiak prestatzearen garrantzia aipatzen du eta azkenik, hirian dauden ezberdintasunak apaltzea nolabait hirian dauden erakundeen, taldeen eta abarren laguntzarekin.

Esperientzien atala amaitzeko gelditzen den azken adierazlea zeharkakotasunari edo transbertsaltasunari loturikoa da. Hau da, esperientziak nork eta nola antolatu diren aztertzea da. Jasotako informazioaren arabera, ikus daiteke esperientziak batzuetan Udaleko sail batek bakarrik antolatu dituela, bestetan zenbait sailen artean antolatu izan direla, hau da, Ingurumen eta Hirigintza Sailek batera esaterako eta azkenik, beste zenbait kasutan udaleko sail eta eragile sozial edo ekonomikoen artean egin dela. Goazen adibide batzuk ikustera:

- Udaleko sail bakarrak antolatu duen kasuan hainbat hiri aurki ditzakegu, baina hauen kasuan ez dira esperientzia guztiak era berean antolatu: Albacetek bi esperientzian «*Foro participativo del Ayuntamiento de Albacete*» Hezkuntza Negoziatuak eta «*Promoción de la igualdad de oportunidades en el medio educativo*» Emakumearen Zentroak antolatu du bakarrik. Azpimarratu behar den ideia bat zera da, nahiz eta hirien esperientziak udaleko departamendu batek bakarrik antolatu ez direla denak modu berean egiten eta horren erakusle dira ondorengo beste adibideak ere.
- Bigarren egoera bat departamendu ezberdinen artean eginikoak aurki ditzakegu. Udal departamendu bi edota departamendu bat eta eragile sozial edo ekonomiko batekin egin dira. Adibidez: Cambrilseko «*Encambrila't!*» Udaleko Ingurumen departamenduak eta Helix enpresak Agenda 21 egitasmoaren barnean antolatu dute ingurumeneko hezkuntzarako programa.

- Hirugarren egoera bat Udaleko departamendu ezberdinek eta eragile sozial, ekonomiko zein erakundeen artean eginikoa litzateke. Kasu honetan kokatuko lirateke ondorengo hiriak eta esperientziak: Gasteiz, «*Sendas Urbanas*» Udaleko Presidentzia, Kirol, Kultura, Zerbitzuak eta Turismo departamenduak, Gizarte Zentroak, Teknologia berriak, Hirigintza, Zerbitzu publikoak, ingurumen departamenduak, Udaltzaingoa, BH bizikleta enpresa eta Boulevard Merkataritza zentroak.

### Web atarien garapena

Parametro honen baitan hainbat adierazle desberdin aztertu dira batetik, Web atariak hiri hezitzailea den ikurrik edo logotiporik<sup>4</sup> duen eta hiria hezitzaile bezala azaltzen den ikusteko; eta bestetik, hiri hezitzaile izaera udaleko atarian zer nolatan azaltzen den ikusteko, hau da, hezkuntza atalaren pisua atarian, hiri hezitzaile ikurra, kokapena, presentzia, barneko atalak, programak eta parte hartzea aztertuta.

- Atal honi hasiera emateko udalaren Web atariaren portada edo *home page* delakoan kokatuko gara. Lehenengo ikusi nahi dena hiri hezitzaile ikurrik duen. Bildutako datuak aztertuta hiru adibide aurki ditzakegu hasierako orrian hiriaren izaera hezitzailea ezagutaraztera ematen dutenak. Honako hauek ditugu:

Barkaldo, [www.barakaldo.org](http://www.barakaldo.org)



Albacete, [www.albacete.es](http://www.albacete.es)



Peligros, [www.ayuntamientopeligros.com](http://www.ayuntamientopeligros.com)



- Hiri hezitzaile ikurrarekin<sup>5</sup> jarraituz, hurrengo urratsa hezkuntza atalera joan eta hiriak ikur propiorik baduen ikustea izan da. Hezkuntza ata-

<sup>4</sup> Jatorrizko logotipoak kolorezkoak dira. Logotipoak ikusi ahal izateko aipatzen diren Web atarietara jo daiteke.


<sup>5</sup> Jatorrizko ikurrak kolorezkoak dira. Ikurrak ikusi ahal izateko aipatzen diren Web atarietara jo daiteke.

lean hiri hezitzaile ikurra nabarmen kokatzen duten hiriak aurki ditzakegu batetik, hala nola, Gasteiz, Barakaldo, Badalona, Cambrils, Palafrugell eta Sevillako hiriak bezala. Horietako adibide batzuk ikusiko dugu:

Badalona: <http://www.badalona.cat/educacio/>



Palafrugell: <http://ajpalafrugell.org/content/view/295/225/>



Barakaldo:  
<http://www.barakaldo.org/barakaldo/html/euskera/ciudadEducadora.htm>



Vitoria-Gasteiz: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)



Bestetik, Hezkuntza atalean ikurrik ezarri ez arren departamendu honetatik eskaintzen diren hezkuntza jardueren gidan hiri hezitzaile ikurra ezaritzen duten hiriak aurki ditzakegu. Horien artean: Donostia eta Zaragoza ditugu.

Donostia: <http://www.donostia.org/hezkuntzagida.nsf>



Zaragoza: <http://cmisapp.zaragoza.es/ciudad/educacion/>



Eta azkenik, gainontzeko hiri guztiak hiri hezitzaile ikurrik ez duten hiriak ditugu, ugarienak direnak ezbairik gabe.

- Hurrengo adierazlea Hezkuntza atala erraz aurkitzen den edo zailtasunak dauden ikusi ahal izateko pentsatu da batetik eta bestetik, behin hezkuntza atalean aurkitzen garenean bertan zer aurki dezakegun ikustea da.

Hasiera baten esan beharra dago Hezkuntza atalak izendapen ezberdinek hartzen dituela. Besteak beste honako adibideak aipa daitezke:

- Donostian, Gazteria, Hezkuntza, Kooperazioa eta Giza Eskubideak.
- Bilbon, Hezkuntza, Gazteria eta Kirola.

- Aviles-en, Hezkuntza, Formazioa eta Enplegua.
- Cordoban, Hezkuntza eta Haurtzaroa.

Aztertutakoaren arabera esan daiteke hiri ugari eskaintzen dutela hasierako orritik sarbidea Hezkuntza atalera. Horien artean besteak beste aipatzekoak dira: Gasteiz, Iruñea, Badalona, A Coruña, Burgos, Cambrils, Castelldefels, Getafe, Girona, Reus, Peligros eta abar. Orotara, 26 hiri aurkitu dira Hezkuntza atalera sarbide erraza bezala antzeman direnak.

Hala era badira hiri ugari, Hezkuntza atalera sarbidea zaila dena. Zaila esaten denean batetik, hasierako orritik sartu ezin denean esan nahi da eta bestetik, sartu ahal izateko beste atal batera jo beharra dagoenean eta kasu askotan, Web guneko maparen laguntzaz. Horien artean ditugu, Donostia, Albacete, Barberá del Vallés, Calviá, Ciutadella de Menorca, Cordoba, Écija, Rubí,...Orotara sarbide ez erraza duten hirien kopurua 30 izan da.

- Behin Hezkuntza atalera sarbidea aurkitu ondoren, bertan aurki dezakegunaren inguruko deskribapen laburra egin da. Ikusitakoaren arabera esan daiteke gehienetan edo agertzen diren azpiatalak honako hauek direla:

- Hiriko ikastetxeen datuak. Gehienetan etapaka antolatua.
- Hezkuntzarako zerbitzuak.
- Helduentzako hezkuntza.
- Hiriko hezkuntza eskaintza.
- Baliabideen gida.
- Bekak eta laguntzak.
- Liburutegiak, museoak eta arte eskolak.
- Unibertsitatea.

Hain ohikoak ez diren atalak bestelako hauek izan daitezke:

- Programak: Adibidez, Eskola porrota edota absentismoa bezalakoak.
- Planak: Hizkuntza normalkuntza, Eskolatik lan munduratzea, Eskolako bortxa.
- Eskola Agenda.
- HHP (Hiriko Hezkuntza Proiektua).
- Hezkuntza komunitatea eta eskola kontseilua.
- Estekak: AICE-ra, udal administrazioaren beste Web atari batzuetara, beste erakunde batzuetara.

- Esparru estrategikora joanez gero, hurrengo adierazlea HHPa baduen edo ez da. Hiri hezitzaileen kasuan konpromisoak hartetik esparru estrategikoan jarduera eta parte hartzea sistematizatzen duen tresna litzateke. Honako hau esan daiteke ikusitakoaren arabera:

- Ohikoena izaten da hiri hezitzaileek HHP edo PEC (Hiriko Hezkuntza Proiektua edo Proyecto Educativo de Ciudad) izendapena.

Erantsi beharreko beste izendapen batzuk, PEL (Proyecto Educativo de Lugar), PEE (proyecto Educativo de Entorno) edo PC (Plan de Ciudad) dira. Hauek izango dira esparru estrategikoan antolatutako proiektuak izendatzeko adibideak.

- Aztertu diren hirien artean Aviles, Badalona, Barcelona, Cambrils, Canovelles, Ciutadella de Menorca, Cornellá de Llobregat, Gijón, Girona, Granollers, Hospitalet de Llobregat, Lleida, Mataró, Palafrugell, Peligros, Reus, Rubí, San Boi de Llobregat, Sant Cugat del Vallés, Santa Coloma de Gramenet eta Tarragona ditugu HHP egituratua eta aurrera daramatenak, guztira 20 hiri.
- Gainontzeko hiri guztiek, 36, ez dute azterlan hau burutu den denbora tartean HHPrik beraien atarietan agertu.

• Planak eta programak aztertzekeo asmoa, HHParen osagarri bezala eta proiektu horretatik eratorrita sortuak izan zitezkeenaren ideiarekin erantsi zen batez ere. Nabarmendu daitekeen datu bat hiri gehienek planak eta programak badituztela da. Askotarikoak dira aurki ditzakegunak:

- Zuzenean hiri hezitzaileek antolatu dituzten esperientziekin lotura dutenak. Adibidez, Gasteizko kasuan Mugikortasun planarekin mugikortasun desberdinentzako hiriguneak egokitzea pentsatu dute eta baita hiriaren gune berdeak berritu eta berreskuratu.
- Bestalde, hiriak hartu dituen hiri hezitzaileen gutuneko konpromisoekin zerikusia dutela esan daiteke, adibidez Donostiako kasuan hainbat programa aurki ditzakegu: Hezkuntza eta Ingurua ezagutu; Ingurumen Hezkuntza eta Kontsumoa; Bide Hezkuntza; Hezkuntza eta Kirola,... bezalako gaiak lantzen dituztenak.

Azkenik erantsi daitekeen datu bat orokorrean hiri denek dutela planik edo programarik beraien Web atarietan.

• Azkeneko adierazlearekin hiri hezitzaileek hiritarren parte hartzea nola landu, antolatu edo sistematizatu duten aztertzea izan da. Nolabait aurreko esparru estrategikoaren ezinbesteko elementu bezala ikusten da parte hartzea. Ikus dezakegun lehen egoera hiri hezitzaileak parte hartze atalean garapen maila desberdinak agertzen dituztela:

Aztertutakoaren arabera lehenengo eta behin parte hartzearen inguruan atalik ez duten kasu batzuk ikusi dira, besteak beste Palafrugel, Écija, Burgos eta Peligros aipa daitezke.

Soilik iradokizunak eta informazioa emateko gune bezala prestatuak daudenak Santa Cruz de Tenerife eta Pozuelo de Alarcón aipatu daitezke. Hauei elkarreentzako dirulaguntzak, kolaborazioak eta boluntarioak kudeatzeko agentzia bat badutenak gehitu diezazkiekegu, hala nola, Gasteiz.

Hurrengo mailan, bigarrenik, nolabait parte hartzearen inguruan araudia eta helburuak zehaztuta dituzten hiriak ditugu. Dokumentu mailan le-

hen urratsak emanak dituztenetaz ariko ginateke. Adibidez, A Coruña, Canovelles eta Sabadell.

Udaleko jardunean murgiltzeko haurren eta eskola-umeen parte hartzea landu duten adibide batzuk ere aurki ditzakegu, adibidez, Cornellà de Llobregat eta Puerto Real.

Dokumentu mailatik haratago joan eta Udaleko departamendu bateko edo besteko gaiak erabakitzeko parte hartze prozesuak bideratu dituzten kasuak ere badaude, hauen artean, Albacete eta Cordoba. Batez ere Udaleko aurrekontuetan antolatu dira parte hartze prozesu gehienak. Hurrengo urrats kualitatiboa parte hartzea sistematizatua agertzen denean ikus daiteke, hau da, aurreko egoera guztietaz gain badago parte hartzea kudeatzeko guneen antolaketa (distrituak, kontseiluak, aholkulari teknikoak, auzoetako batzordeak,...) egina dutena. Nolabait udal-gaien edo arloen arabera batzordeak (teknikoak, arduradun politikoa, auzokideak) osatzen dituzte. Gaia auzoetan eta distrituetan aztertzen da eta hurrengo antolakuntza mailan, bigarren batzorde baten, erabakiak hartzen dituzte. Adibide batzuk aipatzearren, Calviá, Badalona, Aviles, Rubí, Sevilla, Bilbo, Getafe, Logroño eta Madril dira besteak beste.

Azken sistematizazio maila aipatzekotan Bartzelonako eta Cambrils-eko kasuak ditugu. Aurreko garapen maila guztiak UUP-ean (Udaleko Urteko Plana) edo PAM (Plan Anual Municipal) jasoak izatea litzateke.

## 4. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNAK

### 4.1. Ondorioak

Aurreko atalean datuen deskribapena parametro ezberdinak kontutan hartuz jaso dira. Honako atal honetan ordena berdina jarraituko da baina modu orokorrago batean azalduko dira ondorio nagusiak.

- Aztertutako hiriak ikusita parte hartu duten hirien gehiengoa hiri handiak dira, hau da, 50.001 biztanletik gorakoak.
- Esperientzia kopuruari dagokionez, esan beharra dago, badirela adibide batzuek besteen ondoan nabarmentzen direnak, horietan Bartzelona, Reus eta Zaragoza ditugu. Maila apalago batean Sabadell, Córdoba eta Mataró. Esan beharra dago Hiri Hezitzaileen sorreran eta Bartzelonan ospatu zen Hiri Hezitzaileen I. Biltzarra egin zenetik Kataluniako hainbat herri lidergoan jardun direla. Lidergo horretan jarduteko aldagai nagusienak Generalitatearen baliabideen esleipena izan da batetik eta Bartzelonako Aldundiaren Hezkuntza Sailaren aholkularitza laguntza bestetik. Honek babeseta aholkularitza eskaini die hiriei. Azkenik aipatu, hirien arteko sarea ere sortu dutela batez ere hiri hezitzailearen garapena laguntzeko eta

HHPak aurrera ateratzeko. Aldagai hauek aipatzea ez da kasualitate hutsa. Ikerketa honen testuingurua izan den «Gasteiz hiri hezitzaile gisa» proiektuan parte hartzeak adituak diren ikertzaileen eskutik jaso den informazioa da. Informazio hau, proiektuaren hasieran eginitako bisitaldiek eskaini dute, hau da, taldea osatzen duten irakasleek Bartzelona eta inguruko herrien egoera eta proiektuak ezagutu dituzte zuzen zuzenean. Beraz, tokiko administrazioek **babesa eta aholkularitza** duten kasuan hiri hezitzaileen inguruko esperientziak ugariagoak dira eta **hirien arteko antolamendu era ezberdinak** sortzen dira lankidetzaz sustatzeko.

- Esperientziekin jarraituz ikusi da baita esperientziak eguneratuak izateak hiri hezitzailearen izaerari jarraipena emateko adierazpena esan nahi duela. Ikusitakoaren arabera **hiriek orokorrean esperientziak eguneratzen dituzte**. Eguneratu dituzten hiriek denbora ibilbide desberdina egin dute. Hau da, bada 10 urte baino gehiago hiri hezitzaileen elkartekide diren belaunaldia eta esperientziak eguneratuak dituztenak; bigarren belaunaldi bat agertzen da, 10 urte baino gutxiago dituztenak baina hala ere esperientziak eguneratuak dituztenak. Eta azkenik, 10 urte daramatzatenak eta esperientziak izan badituztenak ditugu baina eguneratu gabe dituzten belaunaldiak; aurrekoekin alderatuz, helduak ez direnak. Beraz, **maila ezberdinetako heldutasuna** duten hirietaz ariko ginateke solasean, hots, hiri hezitzaile *izaera heldua* dutenak, hau da, esperientziak orain dela hamar urte edo gehiago iraun eta eguneratzeaz arduratzen direnak eta beste belaunaldia, *heltze bidean* dagoena. Azken honen kasuan urteak aurrekoaren kasu berean aurkitzen dira baina eguneratzeaz ez dira hainbeste arduratzen.

Badira ibilbide laburragoa (5 edo 6 urte) egin duenik ere. Hiri hauen kasuan esperientziak kopuruz urriagoak izanik ere eguneratuak dituzte. Belaunaldi gazteena bezala identifikatu daiteke baina hala ere, badirudi ibilbide luzeagoa egin dutenen ildotik ikasi dutela.

Azkenik gogoetarako beste datu bat azaltzen da. Hau da, hiriek beraien esperientzien artean esperientzia batzuk besteak baino eguneratuagoak dituzte. Eguneratuak dituzten esperientziak al dira hiritarren aldetik erantzun onena eman dutenak? Arrakastatsuenak izan al dira? Antolakuntza aldetik, zeharka egindakoak al dira? Edo beste begirada bat erabiliz, Faurek (1987) UNESCO-rentzako eginitako txostenean jasotzen duen hiri hezitzailearen funtzio ezberdinen artean, hiri ezagutzera emateko hiriaren erakusleho edo propaganda bezala agertzeko asmoa azaltzen du. Hari horri tiratuz, hiriaren izena zabaltzeko esperientziak datu basean sartu eta maila sinbolikoan gelditu baldin bada? Hezitzailea al da aukera hori?

- Tokiko edo udal administrazioaren jardunaren ezaugarriari erreparatuz eta hiri hezitzaileen izaera lantzen diharduen honetan, Trillak

(1999) administrazioaren departamenduen arteko lankidetzaz, gardentasuna, iragazkortasuna eta finean zeharkakotasuna azpimarratzen du. Alderdi horri erreparatuz, ikusi ahal izan da hiri hezitzaileen heldutasun maila bezalaxe zeharkakotasunez aritzeak ere **graduazio ezberdina** agertzen duela. Hau da, hiri hezitzaileek kasu askotan esperientziak Udaleko departamendu bakarrak antolatu ditu eta ohikoena Hezkuntza Departamentua izan da. Bigarren maila batean, departamendu ezberdinen (biren artekoa) artean antolatutakoa aipa daiteke. Eta azkenik eta maila gorenean jarri daitekeen adibidea departamendu eta eragile ezberdinen artekoa da. Beraz, zeharkakotasunari dagokionez, **hiru mailakatze** bereiztu daitezke zeharkakotasunez aritzearen kasuan:

- I. Ohiko antolakuntza bakartua.
- II. Lankidetzaz bi departamendu edo eragile eta departamendu baten artean.
- III. Lankidetzaz (barne eta kanpo aldeko komunikazioa), koordinazioa eta ardura partekatua.

— Hiri Hezitzaileen gutuneko printzipioen garapenari begiratuz hiri hezitzaileen esperientziak batik bat hiriko **gizataldeen garapena** bultzatzen eta hezkuntzarako eskubidea bermatzera bideratzen dira batetik eta bestetik, gizataldeen garapenean eta zehazki **haur eta gazteen** kasuari erreparatuz baliabideak, jolas eta kultur guneak eskaintzera bideratuak daude. Bigarren maila batean, **bakearen kultura eta elkartasuna** bezalako balioak lantzea, **politika irekiak** eta **zeharkakoagoak** egitea eta hiritarren **parte hartzea** bultzatzea izan dira printzipio landuenak. Beraz, azterturiko esperientziak garapen esparruarekin lotura egiten hasita, esan daiteke, esperientzia batek hainbat printzipio beregan hartzen dituen eta alderantziz, printzipio bakar bat osotasunean lantzeko esperientzia ezberdinak behar direnez bereiztu diren zazpi esparru nagusietatik esparru landuena nabarmentzeko beste argitasun ez dela ikusten.

Dena dela, hiri hezitzailearen izaeran ezinbesteko osagarria printzipio hauek betetzea da, nahiz eta modalitate desberdinak aurkitu. Ondorio hau aztertu ondoren gaineratu daitekeen beste ideia edo gogoeta, hiri hezitzaileek beraien hirigunean dituzten premiei erantzuna bilatzeko saiakera horretan kokatu daitezkeela hezkuntza esperientzia berritzaileak. Hau da, hiriak bere esparru desberdinetan antzematen dituen premien lehentasunaren arabera bideratuko dira esperientziak premia horiek asetzera.

— Hiri hezitzailearen izaeraren lehen parametroak ikusita Web atariek hezitzaile izaera adierazten duten argitzera jo da. Aurretiaz azpimarratu den ideia nagusia udal administrazioen Web atarietan hezkuntzaren presentzia izan da. Hau dela eta ikusi izan da, ezarritako



irizpideen arabera, udal atari gehienak **ez dute lehen planoan hezkuntza** atala ezartzen. Alegia, hezkuntzaren atala beste atal batetik bideratua dago kasu gehienetan. Hiri hezitzaileetaz ari garenez udal administrazioak garbi adierazi beharko luke bere izaera hezitzailea eta modu bat aipatutako hau izan daiteke. Ondorio honetatik gogoe-tarako galdera hau sortzen da: Zerikusia al du hiriaren tamainak, beraz baliabide gehiago, hezkuntzaren presentzia lehen plano ba-tean ezartzearekin? Hurrengo abagune batean aztertzeo puntua li-zzateke.

- Behin hezkuntzaren kokapena ikusirik, bertan aurki dezakeguna aztertzeari ekin zaio. Kontutan izan behar da hiri hezitzailearen izaerak hezkuntzaren presentzia bermatu eta sustatu behar duela ezba-irrik gabe. Hau horrela izanik, kontutan hartu behar da Trillak (1999) aipatzen duena, alegia hiriak hiru dimentsio izan behar dituela. On-dorengo hauek ditugu: bata, hiria hezkuntza baliabideak dituena eta nolabait **hezkuntzaren jarraipena** (baliabideak, jarduerak, ekin-tzak, topaketak,...) ziurtatzera bideratua; bestetik, hezkuntza eragi-lea (elementu kulturalak, egiturazkoak, bizimoldeak, jarrerak,...), hots, hiriaren hezitzaile gaitasunak **hiria bitarteko didaktikoa** bilakatzen du; eta azkenik, hezkuntzarako edukia delarik, hau da, **hiritik ikasteko aitzakia eta aukera** dela azpimarratzen du modu informalean bertara moldatu, egokitu eta ezagutu ahal izateko. Eta zer ikusi ahal izan da ikerlan honetan? Orokorrean honela sailkatu daiteke:
  - Baliabideak eta hezkuntzaren jarraipena ziurtatzera bideratutako informazio atalak: batik bat, etapa ezberdinetako ikastetxeak, haurtzaindegiak, arte eta musika eskolak, helduentzako eskolak, liburutegiak eta museoak, ludotekak, gizarte-etxeak ezagutzera emateko dira. Urte osorako jarduerak eta laguntzak ere ezagu-tzera ematen dira. Aztertu diren hiri hezitzaileen kasuan, **bat da-toz** atal hauek ezagutzera ematerako orduan. Ohiko atalak direla esan daiteke. Azterketa sakonago eta zehatzago bat egitekotan hurrengo galdera atal hauek agertzeko modua eta argitasuna izan-go litzateke. Eta idealagoa oraindik, baliabide hauek guztiak hiri bakoitzean non eta nola kokatuak dauden behatzea.
  - Hiria bitarteko didaktiko gisa azaltzeko atalak bezala identifika-tu direnak, zine eta antzerki topaketak, haur eta familiei, gazteei, helduei, emakumei,... bideratutako programak, jolas-guneak, parkeak, hirigintzako edo mugikortasuneko planak, udalaren hezkuntzarako zerbitzuak, zerbitzuen gida, hizkuntza normal-kuntzarako planak, lan-munduratzeko planak, eskolaz kanpoko ekintzak, prebentziorako programak, hezkuntzarako orientazio zerbitzua izan dira besteak beste. Intentzio osoz prestatutakoak

dira, hau da, hiriak hiritarren ongizatea hobetzeko, haien jarrerak, bizimoldeak egokitzeko bideratutako bitartetakoak ere badira. Intentzio honek *a priori* udal administrazioaren jardunbidea didaktikoa izatera eta hiriaren plangintza eta egoera fisiko zein arkitektonikoa ere egokitzera eramaten du.

- Hiria heziketarako eduki bezala adierazten duten atalak zailtasun gehiago aurkezten ditu. Zailtasunen zergatia honako hau litzateke, udal administrazioak antolatu eta aurrera eraman dituen jardunbide, ekintza edo eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak zein modutara egin eta kokatzen dituen aztertu beharko litzateke. Ez da hau kasu hori. Kontutan hartu behar baita hiritarrek aurreko lerroetan aipatutako guztitik hiriaren irudi bat eraikitzen dutela eta bertan izaten dituzten esperientziak hiriarekiko hautematea baldintzatzen duela. Baina aurrera begirako hainbat aipamen egitera eramaten gaitu, hau da, aurreko bi ataletan zerrendatu diren baliabideen antolakuntza, bitartekoen egoera eta haietara iristeko aukera berdintasuna, finean **jardunbidearen ezaugarriak** ezinbestean kontutan hartu behar direla hiria hezitzailea izateko.

Amaitzeko esan daiteke, hezkuntza atalerako eduki egokienak bereiztea ez dela guztiz bidezkoa batez ere hiriaren tamainaren arabera baliabideak desberdinak direlako. Baina hala ere, edukiak izan behar duen nolakotasuna behinik behin, kontutan hartzekoa izan beharko litzateke.

- Esparru estrategikoa HHParekin (Hiriko Hezkuntza Proiektua) lotzen da. Esparru honekin lotuta hainbat aipamen egin daitezke: Batetik, HHP izateak hiri hezitzailearen garapen edo **heldutasun maila** gorenekoa adierazi nahi duela ikusi da. Hau da, hiriak bere hezkuntza eskaintza, baliabideak eta parte hartzea sistematizatzeko egitasmoa adierazi nahi duelako. Hari beretik, egitasmo honek beste hainbat programa, proiektu eta ekintzari bideak irekitzen dizkio modu ordenatu eta sistematizatu batetik. Bestetik, ikusi ahal izan da **esperientzia kopuruak** ez duela HHP izatearekin lotura zuzenik. Hau da, esperientzia ugari dituzten hiriek ez dutela zertan HHP izan behar eta alderantziz, esperientzi gutxi dituzten hiriek HHP izan dezaketela. Beraz, baliteke hiri hezitzailearen heldutasun mailarekin zerikusia izatea. Azkenik, Kataluniako hirien adibideak (HHPak, parte hartzea, Xarxa de Municipios, esperientzia berritzaileak, Aldundiko Hezkuntza Departamenduaren aholkularitza zerbitzua,...) ikusirik hein handi batean bederen baieztatu daiteke **azpiegiturak eta aholkularitza** izateak hiri hezitzaileen garapena erraztu eta bideratzen duela.
- Azkenik, hiri hezitzaileen garapenean hiritarren parte hartzea aztertu da. Jakin badakigu hiritarren parte hartzerik gabe hiri hezitzailea

izateko aukerarik apenas dagoela. Esan beharra dago parte hartzea antolatua edo ez izateak aurreko atalekin baduela zerikusia. Hau da, ikusi ahal izan da HHP duten hiriek parte hartzeko atala badutela, gradualki (auzo eta barrutietako batzordeak, erabaki mahaiak,...) sistematizatua dutela baina baita HHPrik ez dutenak baina parte hartzea aipatu bezala antolatua dutenak. Lotura ikusteaz gain **parte hartzearen planifikazioan mailaketa** egiteko aukera ere eskaini dute datuek. Honako ondorio honetara iristeko bidea ikusi da:

- a) Parte hartzea arautzeko maila, sistematizaziorik ez: maila hone-tan parte hartzea arautzeko asmoa eta elkarteei bultzada emateko laguntzak agertzen dira; hasiera urratsa dela antzematen da. Esan bezala ez da plangintzarik agertzen.
- b) Parte hartzea gradualki antolatua, sistematizazioa: bigarren maila batean parte hartzearen plangintza arautua eta antolatua agertzen da. Bertan auzo eta barrutietako batzordeak, gaikako erabaki mahaiak eta laguntza tekniko zein politikoa ere kokatzen da. Hainbat esperientzia agertzen dira baita: Aurrekontu parte har-tzaileak, Hirigintzako planak edo auzoen antolaketa parte har-tzearen bidez.
- c) Parte hartzea Hiriaren Udal Planean txertatua, sistematizazio in-tegratua: azken egoera hau litzateke sistematizazio maila gorena. Batetik, aurreko bi sistematizazio mailak bere baitan hartzen dituelako, eta bestetik, haratago doalako, hau da, parte hartzea Udaleko Jardunbide Plangintzan (gazteleraz, Plan de Actuación Municipal) txertatzen delako. Azken honek, udaleko legegint-zaldian betebeharrekoetan esplizituki jasotzen du.

#### 4.2. Hiri hezitzailearen ildo nagusiak: proposamena

— Nola izan daiteke Hiri hezitzaile heldua?

- a) Hiri hezitzaileen esperientzia berritzaileak hiriaren nolakota-sunari eta identitateari jaramon egin behar die.
- b) Hiri hezitzaileen esperientzi berritzaileek hirian eta hiritarrengan sortzen diren premiak asebeste behar dituzte.
- c) Hiri hezitzailearen esperientzia berritzaileak eguneratuak egon behar dira.
- d) HHP arautua, garatua eta abian jarri duena.
- e) Hiritarren parte hartzea bere udal plangintzan txertatua duena.

— Nolakoa da hiri hezitzaile baten jardunbidea?

- a) Hiri hezitzaileen gutuneko printzipioak jardunbide orean baitan kontutan hartzen dituena.

- b) Ez da bakartua. Udal administrazioaren departamendu ororen artekoa izan behar da, zeharkakoa, koordinatua, barne eta kanpo komunikazioak barne hartzen dituena.
  - c) Eragile desberdinekin aritzen dena.
  - d) Hiritarrekin lankidetzan aritzen dena.
- Ziberespazioan identifikazio ikurrak beharrezkoak al dira?
- a) Bai ezbairik gabe. Hiriaren jardunbidea besteak ez bezalakoa dela azaldu behar du bere Web atarian.
  - b) Hezitzaile izaera bermatzen duela adierazi behar du, ez hiriaren propaganda egiteko.
  - c) Web atariaren lotura denetan agertzea komenigarria litzateke.
- Hezkuntzak zein presentzia izan behar du?
- a) Hezkuntzak Web ataria blaitu behar du: hasierako orritik gainontzeko ataletaraino.
  - b) Hezkuntza atalak hiriko baliabideak, planak eta programak eta hauek egiteko modua zaindu behar ditu.
- Zerk errazten du hiri hezitzailearen izaera eta garapena?
- a) Udal administrazioen gaitetik dauden Aldundiek eta Gobernuko agintariek baliabideak eta azpiegiturak bideratzea.
    - Azpiegiturak: aholkularitza teknikoak eta hirien arteko antolamendu sareak.
    - Baliabide pertsonalak, materialak eta funtzionalak.

Jasotze-data: 2008/9/25

Onartze-data: 2008/12/11

### ***Abstract***

---

*Working from a joint project involving different UPV/EHU departments and the Vitoria-Gasteiz City Council DME (Municipal Education Department), the 2006-07 academic year saw the beginning of the project entitled «Vitoria-Gasteiz as an educating city». One of the project's tasks has been to analyse innovating educational experiences in other similar educating cities which echo our current situation. This article will analyse this aspect. As the article progresses, it firstly tackles the concept and the key ideas of educating cities using the three dimensions proposed by Trilla, and the definition and documentation from AICE (International Association of Educating Cities) and the BDCE (Educating Cities Document Bank). This*

will later become a step towards the strategic framework in which the cities attempt to become educators. Each city draws up, articulates and develops educating property using the City Educational Projects (CEP). The CEP is a tool which articulates the social, political and citizen participation dimension. The latter is an essential condition to develop the CEP. Finally, some outlines are provided concerning drawing up the CEP which requires a few minimal conditions and a sequence of decisions and prior actions both from local administration and the community.

**Keywords:** *Educating Citie. Cyberspace. Web portal. Participation.*

---

*A partir de la colaboración entre diferentes departamentos de la UPV/EHU y el DME (Departamento Municipal de Educación) del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se da comienzo en el curso 2006-07 al proyecto de «Vitoria-Gasteiz como ciudad educadora». Una de las tareas del proyecto ha sido analizar las experiencias educativas innovadoras de las ciudades educadoras más cercanas a nuestra realidad. Este es el objeto que analiza el presente artículo. En cuanto al desarrollo del artículo, en una primera parte, nos acerca al concepto y a las ideas clave de la ciudad educadora mediante las tres dimensiones que propone Trilla y la definición y documentación de AICE (Asociación Internacional de Ciudades Educadoras) y el BDCE (Banco de documentos de ciudades educadoras). A continuación, se da un paso hacia el marco estratégico en el cual las ciudades intentan convertirse en educadoras. Cada ciudad elabora, articula y desarrolla mediante los Proyectos Educativos de Ciudad (PEC) la propiedad educadora. El PEC, es una herramienta que articula la dimensión social, política y la participación ciudadana. Esta última es una condición indispensable para el desarrollo del PEC. Por último, se presentan unas pinceladas acerca de la elaboración del PEC, el cual requiere de unas condiciones mínimas y una secuencia de decisiones y actuaciones previas tanto desde la administración local como de la comunidad.*

**Palabras clave:** *Ciudad Educadora. Ciberespacio. Portal Web. Participación.*

---

*À partir de la collaboration entre les différents départements de l'UPV/EHU et le DME (Service Municipal de l'Éducation) de la municipalité de Vitoria-Gasteiz, le projet «Vitoria-Gasteiz, Ville Éducatrice» a été lancé lors de l'année 2006-2007. Un des points du projet a été d'analyser les expériences éducatives innovantes des villes éducatrices les plus proches de notre réalité. C'est là l'objet de l'analyse que se propose de faire cet article. Concernant le corps de l'article, dans un premier temps, il propose une approche du concept et des idées clés de la Ville éducatrice sous les trois dimensions que propose Trilla, la dé-*

*finition et la documentation de l'AICE (Association Internationale des Villes Éducatrices) et du BDCE (Banque de données des Villes Éducatrices). Par la suite, on passe au cadre stratégique dans lequel les villes tentent de devenir des villes éducatrices. Chaque ville élabore, organise et développe grâce aux Projets Éducatifs de la Ville (PEC) la propriété éducatrice. Le PEC est un outil qui articule la dimension sociale, politique et la participation citoyenne. Cette dernière est une condition indispensable pour le développement du PEC. Sont enfin présentées quelques aspects de l'élaboration du PEC, il exige des conditions minimales et une séquence des décisions et actions préalables que ce soit du point de vue de l'administration locale comme de celui de la communauté.*

**Mots clé:** Ville Éducatrice. Cyberspace. Portal Web. Participation.

## BIBLIOGRAFIA

- AICE (2004): «La Carta de Ciudades Educadoras, Génova 2004». *Aula de Innovación Educativa*, 152, ekaina, 2006. 24-28 orr.
- AICE Biltzarretako dokumentuak. [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_congresses.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_congresses.html) (2007/10/25).
- BIDCE [http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec\\_banc.html](http://www.bcn.es/edcities/aice/estatiques/espanyol/sec_banc.html) (2007/10/25).
- CALDERÓN, A. (2006): *La evaluación de páginas web*. <http://observatorio.cnice.mec.es/modules.php?op=modload&name=News&file=article&sid=334&mode=thread&order=0&thold=0&POSTNUKESID=dbb9e473ef1c93f36633044941818c62> (2007/10/25).
- CNICE (Centro Nacional de Información y Comunicación educativa) <http://www.cnice.mecd.es/> (2007/10/25).
- CODINA, L. (2003): *Metodología de análisis y evaluación de recursos digitales en línea* [en línea]. Urria 2003.
- COOKE, A. (1999): *Neal-Schuman authoritative guide to evaluating information on the Internet*. New York: Neal-Schuman.
- Cornell University Library <http://www.library.cornell.edu/olinuris/ref/webcrit.html> (2007/10/25).
- DOMÍNGUEZ, D; BEAULIEU, A; EESTALELLA A; GÓMEZ, E; SCHNETTLER, B. & READ, R. (2007): «Etnografía virtual». *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research*, 8(3), <http://www.qualitative-research.net/fqs-texte/3-07/07-3-E1-s.htm>.
- E-Library. Instruction Commons: Guías Evaluación de páginas Web. [http://www.lib.iastate.edu:9050/resources/evaluation/index\\_esp.html](http://www.lib.iastate.edu:9050/resources/evaluation/index_esp.html) (2007/10/25)
- FAURE, E.; HERRERA, F.; ABDUL-RAZZAK, K.; PÉTROVSKI, A.V.; RAHNEMA, M. & CHAMPION WARD, F. (1987): *Aprender a ser*. Madril: Alianza Universidad. UNESCO
- Internet Scout Project <http://scout.wisc.edu/> (2007/09/10)
- JIMENEZ, O.; LUKAS, J.F.; BASURKO, F.; SANTIAGO, K. & LIZASOAIN, L. (2008): «Hiri Hezitzailea, kontzeptua eta praktika. Hiri Hezitzailearen ildo nagusietara hurbilpena». *Tantak*, 2008, 40, 109-127

- MARQUÉS GRAELLS, P. (2002): *Las web docentes* [linean]. Incluye ficha de análisis. <http://dewey.uab.es/pmarques/webdocen.htm> (2007/10/08).
- MERLO VEGA, J.A. (2003): «La evaluación de la calidad de la información web: aportaciones teóricas y experiencias prácticas». *Recursos informativos: creación, descripción y evaluación*. Mérida: Junta de Extremadura, 2003, 101-110 orr. (Sociedad de la información, 8). <http://exlibris.usal.es/merlo/escritos/calidad.htm> (2007/09/10).
- Public Library <http://www.clearinghouse.net> (2007/09/10).
- SOSIG (Social Science Information Gateway) <http://www.intute.ac.uk/socialsciences/lost.html> (2007/09/10).
- TRILLA (1999): «La idea de la ciutat educadora». *Temes d'educació*, 13, uztaila 1999. Bartzelona. 11-51 orr.
- 1985/7 apirilaren 2ko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (TAOL). 26. eta 121. artikulua.
- WILKINSON, G.L., BENNET, L.T. & OLIVER, K.M. (1998): *Evaluating the quality of Internet information sources* [linean]. <http://www.edtech.vt.edu/edtech/kmoliver/webeval/webeval.html> (2007/09/10).